

Izenburua: Apirila ñirñirka

Pseudonimoa: Ihintza

90eko ohea

Arropa guztiak erantziko nizkizuke,

udazkeneko arbolak lez,

soil, xarmant, gelditu arte.

Orduan ikusiko nituzke argi,

begi gorri lanbrotuez,

zure aldaka langile zabal

nire galbide.

Bitartean hemen nabil,

ze erremedio,

zure sabelean murgildu ezinik

konortea galdu barik.

Eskuen artean

eztanda egingo dit

irudimenak.

Marea gora

Olatu bat zara nigana zatozenean.

Olatu bat zara

eta ni hondar idorra

zure apar leunak bustitzeko irriketan.

Alde egiten duzu,

zuloak ageri zaizkit nonahi borborka.

Zure hezetasun jostariaz

kiskaltze bidean dudan larruazala

berriz estaltzen duzun arte

ez dira itxiko.

Haize leuna

Zure alkandoraren

botoi askatuan beherako

transumantzia da

udako ilunabar laranja batean

plazaren harrizko tronuan eserita

bizkarrean gora amildutako

haize leuna.

Hozkirri bero

arnasestu zabal

belusezko ekaitz

zure ilargien distira amultsua.

Korri dezagun

maiatzeko garagar zelaietan

zidorrak margotzera.

Etzan gaitezen

lurrak eskaintzen digun kuxinean

eskuen garretan urtzera.

Macarelleta

Elkarrekin dantzan zebiltzan

haize espiralak ginen.

Itsaso berde urdin garden zure arima.

Batera urtu zitzaizkigun erlojuak.

Barre egin zenuen, axolagabe,

izarrei baimena emanaz

zeruan gorako bide ezkutua

jarraitu zezaten.

Negua berriz helduko zelako

tristetu nintzen.

Honek bukatu behar badu

kaio guztiek kostatik ihes

egin dutelako izan dadila.

Tximiniak

Gezurra dirudi,
baina oraindik ere
Gillespieren oihartzuna antzeman daiteke
biharko bezperaren atmosfera honetan,
autobuseko kristalaren bestaldean
aspaldi exegeten liluraz
himena galdutako
giza-paisaia postindustrialari
izerdia barik adurra dariola.

Gezurra dirudi,
baina oraindik ere
apirila ñirñirka sumatu dut zure begietan
nire esku kedartsuen artean bildu zaitudanean,
eta lakainen arteko nektar likitsua
hatzen puntan dudala
aitaren egin dut, arnasestuka,
idulki honetatik
zure sabeleko enbata

nire hortzen amildegiaren kontra

nola apurtzen duen

dakusadan bitartean.

Gezurra dirudi,

baina oraindik ere

tximistak orraz ditzakegu.